

2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorren Proiektua

Proyecto de Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



03. Lana eta enplegua

03. Trabajo y empleo

Osalan
Lanbide

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorren Proiektua

Proyecto de Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urria / 1a, octubre 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

03-LANA ETA ENPLEGUA	
03-TRABAJO Y EMPLEO.....	5
Sekzioaren eta programen memoriak	
Memorias de la Sección y de los Programas.....	6
Gastuen egoera-orria	
El Estado de Gastos.....	57
3110 Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Trabajo y Empleo	58
3112 Lana	
Trabajo.....	62
3121 Gizarteratzea	
Inclusión Social	66
3211 Enplegua	
Empleo	68
3212 Gizarte Ekonomia	
Economía Social.....	72
3231 Prestakuntza	
Formación.....	74
Sarrerren egoera-orria	
El Estado de Ingresos	75
3110 Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Trabajo y Empleo	76
3112 Lana	
Trabajo.....	77
3212 Gizarte Ekonomia	
Economía Social.....	78
Gastuen laburpenak	
Resúmenes de Gastos.....	79
Sarrerren laburpenak	
Resúmenes de Ingresos	93
ORGANISMO AUTONOMOAK	
ORGANISMOS AUTÓNOMOS	95
OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	
OSALAN. Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.....	96
LANBIDE. Euskal Enplegu Zerbitzua	
LANBIDE. Servicio Vasco de Empleo.....	140

03-LANA ETA ENPLEGUA
03-TRABAJO Y EMPLEO

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

LANA ETA ENPLEGUA

TRABAJO Y EMPLEO

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikulua ezartzen ditu Lan eta Enplegu Sailari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak.

Eginkizun horiek Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren arabera antolatzen dira, uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak eta uztailaren 12ko 84/2022 Dekretuak aldatuta.

Esleipen funtzional eta antolamenduzko horretan oinarrituta, Sailari laguntzeko hiru zuzendaritza horizontal bereizten dira, hala nola Zerbitzuak, Kabinetea eta Komunikazioa, eta bi jardun-arlo handi: Lana eta Gizarte Segurantzaren eta Enpleguaren eta Gizarteratzea. Horiek bat datoz sailburuordetzen egungo konfigurazio organikoarekin, herritarren oinarritzako premiei, enpleguei eta lan-baldintza duinei erantzuteko jarduerak sustatzen baitituzte. Halaber, Sailari atxikitzen zaizkio Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak.

Horrela, egitura horrek oinarritzako bi gai biltzen ditu herritar guztientzat: lan duina, pertsonen garapen osoa ahalbidetuko duena, arreta berezia jarri lan-osasunean eta berdintasunean, zeharkako jarduketara gisa, eta enplegu-politika integralak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistema batekin, inor atzean utziko ez duten eta, aldi berean, gizarteratzean eta laneratzean helburu nagusia izango duten gizarte-politikak artatuko dituenak.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza lan-harremanen, gizarte-ekonomiaren (kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa), enpresaren gizarte-erantzukizunaren eta Gizarte Segurantzaren arloko lan-arloko legeria betearazteaz arduratzen da, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan, baita emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizten jarraitzeko sentsibilizazioaz ere.

Organikoki sailburuordetza horren mende daude Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza.

INTRODUCCIÓN

La atribución de funciones y áreas de actuación que le corresponden al Departamento de Trabajo y Empleo viene establecida por el artículo 6 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Dichas funciones quedan organizadas en virtud del DECRETO 7/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, modificado por el Decreto 167/2021, de 6 de julio y por el Decreto 84/2022 del 12 de julio.

Sobre la base de dicha atribución funcional y organizativa se distinguen tres Direcciones horizontales de apoyo y asistencia al Departamento, como son Servicios, Gabinete y Comunicación, y dos grandes áreas de actuación: Trabajo y Seguridad Social y Empleo e Inclusión las cuales son coincidentes con la actual configuración orgánica a nivel de las Viceconsejerías, que promueven actuaciones destinadas a atender necesidades básicas de la ciudadanía; empleos y condiciones de trabajo dignas. Asimismo se adscriben al Departamento los organismos autónomos Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Esta estructura aglutina así dos materias básicas para el conjunto de la ciudadanía; trabajo digno que permita el desarrollo de las personas en toda su extensión con especial atención a la salud laboral y la igualdad como actuación transversal, y las políticas de empleo también integrales con un sistema de garantía de ingresos e inclusión que atienda políticas sociales que no dejen a nadie atrás y a su vez tengan en la inclusión sociolaboral su objetivo principal.

La Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social se ocupa de la ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales, de la economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria; de la responsabilidad social empresarial y de la Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía, así como de la sensibilización para seguir recortando la brecha salarial entre mujeres y hombres.

Dependen orgánicamente de esta Viceconsejería la Dirección de Trabajo y Seguridad Social y la Dirección de Economía Social.

Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokio enplegu-politikari eta laneko prestakuntzari buruzko eskumenak baliatzea, hargatik eragotzi gabe Hezkuntza Sailak lanbide-heziketaren arloan esleitura dituen zuzendaritza-, antolamendu- eta plangintza-eginkizunak, bai eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistema ere.

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza sailburuordetza horren mende dago.

Sailaren egitura zuzen-zuzenean bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren mende dauden organoekin amaitzen da: Zerbitzu Zuzendaritza, Saileko gainerako organoei laguntzeko organo gisa, Saileko arlo guztietan komunak diren gaietan; Kabinete Zuzendaritza, bere karguaren ondorioz esleitura dituen eginkizunak betetzeko zuzeneko laguntza-organoa gisa, bereziki sailburuaren lan-programaren plangintza, jarraipena, koordinazioa eta laguntza; Komunikazio Zuzendaritza, hari baitagokio informazio-harremanen zuzendaritza eta Sailaren ekintzen informazioa zabaltzea, eta gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez sortua.

Horren arabera, Lan eta Enplegu Sailari egiteko hauek dagozkio, besteak beste:

- a) Lan-harremanen arloko lan-legeria betearaztea.
- b) Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.
- c) Enpresaren gizarte-erantzukizuna.
- d) Gizarte Segurantzaren, Autonomiaren Estatutuan aurreikusitako moduan.
- e) Adostasunean eta langileek enpresetan duten parte-hartzearen oinarritutako enpresa-kultura bultzatzea.
- f) Lanaren antolamenduaren hobekuntza eta modernizazioa sustatzea, enpresen barruan produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko.
- g) Garapen ekonomikoaren arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan aritzea, koordinazio- eta lankidetzak-formulak garatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sare sozio-industrialak osatzen duten sektoreen ekoizpen-prozesuak bultzatzeko.
- h) Elkarriketa sozialeko foroak jarduerak eta parte-hartzea bultzatzea.
- i) Ekonomia sozialaren, solidarioaren eta kooperatibismoaren arloko jarduketak sustatu eta koordinatzea.
- j) Enpresen gizarte-erantzukizunaren arloko jarduketak sustatu eta koordinatzea.

A la Viceconsejería de Empleo e Inclusión le corresponde el ejercicio de las competencias referidas a la política de empleo, a la formación en el trabajo, sin perjuicio de las funciones de dirección, ordenación y planificación en el ámbito de la formación profesional que tiene atribuidas el Departamento de Educación, así como el sistema de Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

Depende de esta Viceconsejería la Dirección de Empleo e Inclusión.

La estructura departamental culmina con los órganos que se sitúan bajo la dependencia directa de la Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo: la Dirección de Servicios, como órgano de apoyo a los restantes órganos del Departamento en materias de naturaleza común a las diversas áreas del mismo; la Dirección de Gabinete, como órgano de asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo, singularmente de planificación, seguimiento, coordinación y apoyo del programa de trabajo de la Consejera; la Dirección de Comunicación, a quien corresponde la dirección de las relaciones informativas y la difusión de la información de las acciones del Departamento y el Órgano de Evaluación, Investigación e Innovación en materia de Inclusión que se ha creado por la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

En su virtud, al Departamento de Trabajo y Empleo le corresponden entre otras las siguientes funciones:

- a) Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.
- b) Economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria.
- c) Responsabilidad social empresarial.
- d) Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía.
- e) Impulsar una cultura empresarial basada en la concertación y la participación de los trabajadores y trabajadoras en el seno de las empresas.
- f) Fomentar la mejora y la modernización de la organización del trabajo con el fin de aumentar la productividad y la competitividad en el seno de las empresas.
- g) Colaborar con el Departamento competente en materia de desarrollo económico, desarrollando fórmulas de coordinación y colaboración para impulsar los procesos productivos de los distintos sectores que conforman el tejido socio-industrial de la economía del País Vasco.
- h) Impulsar la actividad y la participación en los diversos foros de Diálogo Social.
- i) Promover y coordinar las actuaciones en materia de economía social, solidaria y cooperativismo.
- j) Promover y coordinar las actuaciones en materia de responsabilidad social empresarial.

k) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren goi-mailako koordinazioa eta zuzendaritza bere gain hartzea eta haren funtzionamendua zaintzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

l) Enpleguaren aldeko sektore publikoko politikak indartzea.

m) Gizarte-eragileek enpleguaren arloan lortutako akordioak bultzatzea.

n) Enplegu eta lan-bitartekaritzako politika aktiboen arloko plangintza estrategikoa, diseinua eta gidalerroak lantzea.

ñ) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, biztanleria aktiboaren (langabezian eta okupatuta dauden) enplegua sustatzeko eta enplegarritasuna handitzeko ekintzak ezartzeko.

o) Enpleguaren eta gizarteratzearen eremuan jarduten duten erakunde publiko eta pribatuak jarduerak sustatzea eta koordinatzea.

p) Bazterkeria-arriskuan dauden pertsona guztiak gizarteratzearekin lotutako ekintzak bultzatzea.

q) 14/2022 Legean bildutako Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko tresnak bultzatzea eta lege hori arau bidez garatzea.

r) Euskal Enplegu Sistema antolatze tresnak garatzea.

Esleipen funtzional horretan oinarrituta, Lan eta Enplegu Saila sail estrategiko gisa eratzten da XII. legegintzaldia markatzen duten hiru ardatz nagusietan:

a) Langileen osasuna bermatzea, kasu honetan Osalanen prebentzio-zerbitzuen eta Laneko Ikuskaritzaren kontrol-zerbitzuen bitartez.

b) Ekonomia eta enplegua suspertzea, Lanbiderekin batera prestakuntza-plan egokiak ezarri enplegu-forma guztietako langabeentzat eta landunentzat, eta gizarte-ekonomiako enpresen, langileen partaidetzako enpresen eta enpresa ekintzaileen jarduerak bultzatuz, enplegu-baldintza duinak bermatuz.

c) Inor atzean ez uztea, arreta berezia ematen baitaie kolektibo ahulenei, bai laneratzeko eta gizarteratzeko formulei, bai diru-sarrerak bermatzeko errentaren ereduak eskaintzen duen babesari, eta hura eguneratu eta modernizatzeari.

Legegintzaldia hasi zenetik, pandemiaren ondoriozko geldialdi ekonomikoaren ondorioz 2020an sortutako zailtasunen testuinguruan, Lan eta Enplegu Sailak honako hau egiaztatu zuen: era horretan, eta egiazta daitezkeen joerei buruzko aurrekontu-kalkuluak ezartzea ezinezkoa dela, eta erabaki zen kalitatezko enplegua sustatzeko ibilbide-orri bat ezartzea, Gobernu honen jardunaren zeharkako ardatz gisa, honako jarduketa-ardatz hauetan oinarrituta:

1) Erakundeek erabakitako inbertsioa.

k) Ostentat la dirección y coordinación superior y velar por el funcionamiento de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

l) Reforzar las políticas del sector público a favor del empleo.

m) Impulsar los acuerdos alcanzados por los agentes sociales en materia de empleo.

n) Elaborar la planificación estratégica, el diseño y las directrices en materia de políticas activas de empleo e intermediación laboral.

ñ) Colaborar con Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en el establecimiento de acciones de promoción de empleo y aumento de la empleabilidad de la población activa (en situación de desempleo y ocupada).

o) Promover y coordinar las actuaciones de los organismos públicos y privados que actúen en el ámbito del Empleo y de la Inclusión Social.

p) Impulsar acciones vinculadas a la consecución de la inclusión social de todas las personas en riesgo de exclusión.

q) Impulsar los instrumentos para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, contenidos en la ley 14/2022 y desarrollo normativo de la misma.

r) Desarrollar los instrumentos que posibiliten ordenar el Sistema Vasco de Empleo.

Sobre la base de dicha atribución funcional, el Departamento de Trabajo y Empleo se configura como un Departamento estratégico en los tres grandes ejes que marcan la XII Legislatura:

a) Garantizar la salud, en este caso de las y los trabajadores a través de los servicios preventivos de Osalan y de los de control de la Inspección de Trabajo.

b) Reactivar la economía y el empleo, estableciendo con Lanbide planes de formación adecuados para las personas paradas y ocupadas en todas las formas de empleo, e impulsando las actividades de las empresas de economía social, las participadas por las personas trabajadoras y las emprendedoras, garantizando condiciones de empleo digno.

c) No dejar a nadie atrás, al prestar especial atención a los colectivos más vulnerables tanto en las fórmulas de inclusión laboral y social como por la protección que ofrece el modelo de renta de garantía de ingresos y su actualización y modernización.

Desde el inicio de la legislatura, en el contexto de las dificultades generadas en 2020 por efecto del parón económico derivado de la pandemia, el Departamento de Trabajo y Empleo constató la imposibilidad de establecer cálculos presupuestarios sobre tendencias demostrables, y optó por fijar una hoja de ruta para favorecer el empleo de calidad, como eje transversal de la actuación de este Gobierno, que se sustenta en los siguientes ejes de actuación:

1) Inversión decidida por parte de las instituciones.

2) Berrikuntza.

3) Gizon eta emakumeen, gazteen eta 45 urtetik gorakoen arteko berdintasuna, kalitatezko enplegua lortzeko.

4) Elkarriketa soziala eta enplegu-politika publikoak adostea.

5) Lan-osasuna, estrategia berri batekin.

6) Laneko ikuskaritza indartzea.

7) Euskal enplegu-sistema publikoa eraldatzea, Lanbide tresna baliagarria izan dadin langileak-aktiboak zein landunak-prestatzeko.

8) 2030erako enplegu-estrategia berria.

9) Erakundeen arteko lankidetzak, gainjartzeak eta eraginkortasunik ezak saihesteko.

10) Eta egonkortasuna eta lasaitasun politikoa enplegua sortzen laguntzeko.

Ardatz horiei buruzko ziurtasunak eta konfiantza eskaini nahi izan dira, enplegua baldintza duinetan sortzen laguntzeko, eta horri gizarte-babeseko sistema indartzeko erronka gehitu behar zaio.

Legegintzaldiaren hasieran ezarritako lehentasunezko helburu horiek legegintzaldiaren lehen hiru urteetan ondo hedatu dira. 2021ean ahalguz nagusiak EAEko produkzio-sistema indartzea, enpleguaren suntsiketari eustea eta enplegua pixkanaka berreskuratzen laguntzea izan ziren, baina 2022an mugari historiko bat gainditu zen, Gizarte Segurantzako afiliazioan erregistratutako maximoak gainditu baitziren eta krisi finantzarioaren aurreko enplegu-maila berreskuratu baitzen. 2023an, listoi hori berriz ere irabiatu da, Euskadin milioi bat pertsona baino gehiago lanean eta eskubideekin, legegintzaldiaren hasieran baino 63.550 gehiago, eta, gainera, behin-behinekotasuna murriztu egin da gizarte-eragileek Espainiako Gobernuarekin adostutako eta 2022an indarrean jarri zen lan-erreformari esker.

Eta aldi berean, Sailak aurreikusitako plangintza-konpromiso eta konpromiso eraldatzaile guztiak bete ditu: Enpleguaren Euskal Estrategia 2030, 2024ko Enplegu Plan Estrategikoa, 2026ko Laneko Seguratasun eta Osasunaren Euskal Estrategia, Gizarte Ekonomiaren Sailarteko Lehen Plana, Laneko Ikuskaritzaren Lehen Kudeaketa Plana, Elkarriketa Sozialaren Mahaia finkatzea eta sustatzea gizarte- eta lan-arloko politikak adosteko foro arrunt gisa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legea, 2026ko Gizarteratze Plana, eta lehenengoz onartzea, politika aktiboetako eskumenak bereganatu zirenetik, Enpleguaren Euskal Legea (2023ko amaierarako aurreikusia).. Gainera, Lanbide eraldatzeko eta hobetzeko aurreikusitako jarduerak gauzatu dira. Lanbide hainbat proiektu pilotu ere ezarri ditu, lege berriak indarrean jartzearekin batera enplegu eta gizarteratzeko politika aktiboak egituratzeko duen eginkizuna aurreratzeko.

2) Innovación.

3) Igualdad, entre hombres y mujeres, jóvenes y mayores de 45 años, para acceder a un empleo de calidad.

4) Diálogo Social y concertación de las políticas públicas de empleo.

5) Salud laboral, con una nueva Estrategia.

6) Refuerzo de la inspección laboral.

7) Transformación del sistema público vasco de empleo que haga de Lanbide un instrumento útil para la formación de trabajadores, sean activos u ocupados.

8) Nueva estrategia de empleo 2030.

9) Colaboración institucional, para evitar solapamientos e ineficacias.

10) Y estabilidad y serenidad política para favorecer la generación de empleo.

Estos son los ejes sobre los que se ha pretendido y se pretende ofrecer certezas y confianza para favorecer la creación de empleo en condiciones dignas, a lo que se suma el reto de reforzar el sistema de protección social.

Estos objetivos prioritarios fijados en el arranque de la legislatura se han desplegado con acierto en los tres primeros años de la misma. Si en 2021 los esfuerzos principales se centraron en fortalecer el sistema productivo vasco, contener la destrucción de empleo y propiciar su paulatina recuperación sobre bases sólidas, 2022 supuso superar un hito histórico, al superar los máximos registrados en afiliación a la Seguridad Social y recuperar el nivel de empleo previo a la crisis financiera. En 2023 ese listón ha sido batido de nuevo, al lograr más de un millón de personas trabajando y con derechos en Euskadi, que son 63.000 más de las que había al empezar la legislatura y, además habiéndose reducido la temporalidad gracias a la reforma laboral acordada por los agentes sociales con el Gobierno de España y que entró en vigor en 2022.

Y de forma paralela, el Departamento ha completado todos los compromisos planificadores y transformadores previstos: Estrategia Vasca de Empleo 2030, Plan Estratégico de Empleo 2024, Estrategia Vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2026, Primer Plan Interdepartamental de Economía Social, Primer Plan de Gestión de la Inspección de Trabajo, consolidación y promoción de la Mesa de Diálogo social como foro ordinario para acordar las políticas en materia sociolaboral, Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión, Plan de Inclusión 2026, y la aprobación por primera vez, desde que se asumieran las competencias en políticas activas, de una Ley Vasca de Empleo (prevista para final de 2023). Además, se han desplegado las actuaciones previstas de transformación y mejora de Lanbide, que ha implementado también diversos proyectos piloto que anticipan su función como pilar vertebrador de las políticas activas de empleo e inclusión con la entrada en vigor de las nuevas leyes.

Hori oinarri hartuta, Lan eta Enplegu Sailak 2024ko ekitaldi ekonomikoari ekingo dio ibilbide-orri finkatu batekin, legegintzaldian zehar sartu diren ziurgabetasunei arrakastaz erantzun ahal izateko, eta hurrengo ekitaldian aurreko hiru urteetan diseinatu, landu eta adostutako politika berri guztiak hedatzeko asmoz. Politika horiek Jaurlaritzaren helburu orokorren barruan kokatzen dira, eta Sail honi dagokionez, honako hauek dira:

- Gure enpresak berraktibatze eta erresilientziatzeko Berpiztu programa aplikatzea.
- Langabezia tasa % 10 baino gutxiagora murriztea, legegintzaldiko helburua izaten jarraitzen baitu, nahiz eta 2023ko ekainean % 7,4 izan.
- Kalitatezko euskal enplegu-eredu inklusiboa eta berdintasuneko.

Enpleguaren bilakaera historikoak, ziurgabetasun- eta eraldaketa-garaietan balio ekonomiko sendoena izan dena, ez du ezkututzen oraindik ere prekarietateko eta nahi gabeko partzialtasuneko poltsak daudela, eta horiek ahaleginak areagotzea eskatzen dutela, bereziki emakumeekin, gazteekin, 45 urteko gorakoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin.

Testuinguru horretan, sektore ekonomikoen produktibitate- eta lehiakortasun-mailei eustea, bereziki industriarena, funtsezko erronka da hazkunde global eta zalantzarikoa aldi hori ahalik eta gehien aprobetxatzeko, trantsizio digital, energetiko-ingurumeneko eta demografikoekin bizi dugun eraldaketa-prozesu sakonaren ondorioz. Trantsizio horiek aukerez beteak dira, baina desberdintasun-arriskua dute erabakiak hartzen ez badira.

Beraz, abagune egokia da gizarte-politikak indartzeko, Euskadi osoaren egoera hobetuko duten erreformei helduz, ongizate-estatuari eusteko erronkei erantzungo dien egoera berri baterako.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez, Lan eta Enplegu Sailak genero-ikuspegia sartu du aurrekontuan. Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeak esan nahi du plangintza egin behar dela, kontuan hartuta politika publikoen hartzailerik diren emakumeak eta gizonak ez direla baldintza eta aukera berdinetan abiatzen, eta ez dituztela behar eta jomuga berberak. Horrenbestez, errealitate-aniztasun hori kontuan hartu behar da espero diren emaitzak zenbatesten direnean.

ZERBITZU ZUZENDARITZA

Sobre esta base, el Departamento de Trabajo y Empleo afronta el ejercicio económico de 2024 con una hoja de ruta asentada que ha permitido responder con éxito a las incertidumbres que se han ido incorporando a lo largo de la legislatura, y con la vocación de que en el siguiente ejercicio se desplieguen la totalidad de las nuevas políticas diseñadas, trabajadas y acordadas en los tres años previos. Esas políticas se enmarcan en los objetivos generales del Gobierno que, en lo referido a este Departamento, se concretan en:

- Aplicación del programa Berpiztu para la reactivación y resiliencia de nuestras empresas.
- Reducir la tasa de paro a menos del 10%, que sigue siendo objetivo de legislatura a pesar de que en junio de 2023 la tasa se situaba en un 7,4%.
- Un modelo vasco de empleo de calidad, inclusivo e igualitario.

La evolución histórica del empleo, que se ha constituido como el valor económico más sólido en tiempos de incertidumbres y transformación, no oculta que todavía existen bolsas de precariedad y parcialidad no deseada, que requieren incrementar los esfuerzos, especialmente con las mujeres, los jóvenes, los mayores de 45 años y las personas con discapacidad.

En este contexto, el mantenimiento de los niveles de productividad y competitividad de los sectores económicos, muy en particular de la industria, constituye el reto fundamental para aprovechar al máximo este período de crecimiento global e incierto, debido al profundo proceso de transformación que vivimos con las transiciones digital, energético-ambiental y demográfica, llenas de oportunidades pero con riesgos de desigualdad en el caso de no adelantarse en la toma de decisiones.

Es por tanto una ocasión propicia para reforzar las políticas sociales abordando las reformas que mejoren la situación del conjunto de Euskadi para un nuevo escenario que encuentre la respuesta a los retos de sostenimiento del estado del bienestar.

En cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, el Departamento de Trabajo y Empleo ha integrado la perspectiva de género a su presupuesto. Incorporar la perspectiva de género a los presupuestos supone planificar teniendo en cuenta que las mujeres y los hombres a quienes se dirigen las diferentes políticas públicas no parten en igualdad de condiciones ni de oportunidades, ni tienen las mismas necesidades ni aspiraciones y que, por lo tanto, esta diversidad de realidades debe ser tenida en cuenta cuando se estiman los resultados esperados.

DIRECCIÓN DE SERVICIOS

Honako gai hauekin lotutako jardunak sartzen dira Zerbitzu Zuzendaritzan: aurrekontua egitea eta kudeatzea, langileen administrazioa eta kudeaketa, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko politikak sustatzen ditu sailean, administrazio-kontratazioa, informatika, hizkuntza-normalkuntza, sailarekin lotura zuzena duten estatistika-eragiketak eta sail osoari laguntza orokorra emateko beste zenbait jarduerak. Halaber, barne-funtzionamenduko jarduerak ere koordinatzen ditu. Era berean, Gobernu Kontseiluaren eta Gobernu Batzordeen mende jarri beharreko gaiak ere izapidetzen ditu.

KABINETE ZUZENDARITZA

Kabinetearen Zuzendaritza arduratzen da Sailaren programaren plangintzaz eta jarraipenaz, haren kanpo-jardueraz eta Sailak sustatutako ekitaldi publiko eta ofizialez.

Zuzendaritza honek bere gain hartzen ditu Sailaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremanak, eta erantzuna ematen die Legebiltzarreko ekimenei, idatziz erantzuteko galderei, dokumentazio-eskaerei, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galderei, Batzordearen eskariz egindako agerraldiei, interpelazioei eta Batzordean ahoz erantzuteko galderei.

Kabinetearen Zuzendaritzaren lanaren beste alderdi bat da beste erakunde publiko batzuetatik (Arartekoa, esaterako) datozen kontsultei sailatutako zuzendaritzek emandako erantzun dokumentatuak bideratzea.

KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Komunikazio Zuzendaritza arduratzen da sailaren komunikazio-politika zehazteaz, zuzentzeaz eta koordinatzeaz, sailaren jarduerak, erabakiak eta politikak behar bezala zabaltzen eta zabaltzen direla bermatzeko, bai informazio- eta prentsa-kanalen bidez, bai publizitate-kanalen bidez. Beste erantzukizun bat Osalan eta Lanbide erakunde autonomoekiko komunikazioa koordinatzea da.

Era berean, Sailari esleitutako webgunea eta sare sozialak zein Irekia ataria mantentzea eta horiek eguneratzea dagokio, herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuei erantzutea «Zuzenean», bere eskumeneko arloetan solaskide eraginkorrak daudela ziurtatuz, eta informazioa eskuratzeko eskaerak ebaztea.

Zuzendaritza honek ere egiten du Sailaren urteko argitalpen-programa, Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin lankidetzan.

INKLUSIO ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOA

En la Dirección de Servicios se incluyen las actividades relacionadas con la elaboración y gestión del presupuesto, administración y gestión del personal, impulsa las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el departamento, contratación administrativa, informática, normalización lingüística, operaciones estadísticas directamente relacionadas con el departamento, y otras actividades de apoyo general al conjunto del Departamento, coordinando igualmente distintas actuaciones de funcionamiento interno. Asimismo tramita los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a las Comisiones del Gobierno.

DIRECCIÓN DEL GABINETE

La Dirección de Gabinete se ocupa de la planificación y seguimiento del programa del Departamento, actividades externas del mismo y actos públicos y oficiales promovidos por este.

Esta Dirección asume las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco, dándose respuesta a las iniciativas parlamentarias, preguntas para respuesta por escrito, solicitudes de documentación, preguntas para respuesta oral en Pleno, comparecencias a petición de la Comisión, interpelaciones y preguntas para su respuesta oral en Comisión.

Otra faceta del trabajo de la Dirección de Gabinete es la canalización de las respuestas documentadas de las Direcciones departamentales a las consultas provenientes de otras instituciones públicas, como el Ararteko.

DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN

La Dirección de Comunicación se ocupa de definir, dirigir y coordinar la política de comunicación departamental para garantizar una correcta difusión y divulgación de las actividades, decisiones y políticas del Departamento, tanto a través de los canales de información y prensa como de los publicitarios. Otra de sus responsabilidades es la coordinación de la comunicación con los organismos autónomos Osalan y Lanbide.

De igual manera, le corresponde el mantenimiento y actualización tanto de la web y redes sociales asignados al Departamento y en el portal Irekia, atender los servicios de información y atención a la ciudadanía «Zuzenean» asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial, y resolver las solicitudes de acceso a la información.

También desde esta Dirección se elabora el programa anual de publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

ÓRGANO DE EVALUACIÓN, INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN EN MATERIA DE INCLUSIÓN

2024an Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitako inklusio arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa jarriko da martxan. Lege horretan jasotako eginkizunen arabera, DSBES ebaluatzen duen plan bat egingo du, kalitate-adierazleak txertatuta. Ebaluazio-kultura DSBESko eragilean artean zabaltzeko eta prestatzeko ekintzak egingo ditu.

DSBESko eragileekin lankidetzan arituko da, politika publikoen diseinuan ebaluazio-irizpideak sartzeko. Eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluarekin eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearekin lankidetzan arituko da, Inklusiorako V. Euskal Planaren plan operatiboan ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak txertatzeko, planaren esparruan aurreikusten diren ekintza, plan eta programetan.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILBURUORDETZA

Lan-politikan, helburu orokorra da, elkarriketa sozialetik eta eragile ekonomiko eta laborekiko akordiotik abiatuta, Sailaren baliabide guztiak enplegu gehiago eta kalitate hobekoa sortzearen zerbitzura jartzea, laneko arriskuen prebentzio-politika integral batekin, kalitatezko enpleguaren oinarritzko ardatza baita. 2026ko Laneko Seguratsun eta Osasunerako Euskal Estrategia onartzea mugari bat da, beste eragile sozial batzuekin landua eta Eusko Legebiltzarrerara helarazia, lan egiten dutenen osasuna babesteko paradigma aldatzen duen neurrian, eta 2030eko Enpleguaren Euskal Estrategian ezarritako lehen baldintza betetzen du, kalitatezko enplegua bideratua, eta bere ekintzak 2023an zehar hedatzen jarraituko du.

Legegintzaldi honetako beste gertaera garrantzitsu bat izan da Euskadik lehen aldiz izatea Laneko Ikuskaritzaren Kudeaketa Plan bat. Plan horrek, langileen eskubideak bermatzen dituen zerbitzu publiko hori indartzeaz gain, gardentasunaren aldeko apustu argia egiten du, bere jarduketan berri ematen duen webgune bat irekitzearen bidez, eta gizarte-eragileen parte-hartzearekin, Euskadiko Laneko Ikuskaritzaren Aholku Batzordea sortuz. 2023an, 7 plaza berri sortu dira Laneko ikuskarien kidegoan, eta 2 plaza Azpikuskarien Kidegoan. Horrek esan nahi du % 31,8ko igoera izan dela Ikuskarien Kidegoan eta % 10ekoa Azpikuskarien Kidegoan 2020. urtetik, legegintzaldi honen hasierako urtetik, eta aukera ematen dutela lan-legediaren zaintza eta kontrola indartzeko, bai eta Zuzendariordetzari laguntzeko unitatea ere, Laneko Ikuskaritzaren koordinazio eta laguntza teknologikoan diharduten langileekin, hori baita hura indartzeko gakoetako bat.

Gainera, erreformatu-prozesu horretan, eta ikuskapenaren funtzio publikoan berdintasuna eragozten duten oztopo sozioekonomikoak sustatzeko helburuarekin, 2023an beka-sistema bat aztertu eta ezarri da Laneko Ikuskaritzako kidegoen oposizioak prestatzeko, epaile eta magistratuentzat jada existitzen diren antzera.

Durante el año 2024 entrará en funcionamiento el Órgano de Evaluación, Investigación e Innovación en materia de Inclusión previsto en la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión. De acuerdo a las funciones contenidas en dicha ley, elaborará un plan de evaluación del SVGII, con incorporación de indicadores de calidad. Realizará acciones de difusión y formación de la cultura de evaluación entre los distintos agentes del SVGII.

Colaborará con los distintos agentes del SVGII, en la introducción de criterios de evaluación en el diseño de las políticas públicas. Y colaborará con el Consejo Vasco de Inclusión y la Comisión Interinstitucional para la Inclusión, con el objeto de incorporar en el plan de operativo del V Plan Vasco de Inclusión, criterios e indicadores de evaluación, en las acciones, planes y programas que se prevean en el marco del mismo.

VICECONSEJERÍA DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

En política de trabajo, el objetivo general es, desde el diálogo social y el acuerdo con los agentes económicos y laborales, poner todos los recursos del Departamento al servicio de la creación de más empleo y de mejor calidad y con una política de prevención de riesgos laborales integral, eje básico del empleo de calidad. La aprobación de la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud Laboral 2026, trabajada entre otros con los agentes sociales y trasladada al Parlamento Vasco, supone un hito, en la medida en que cambia el paradigma de la protección de la salud de quienes trabajan, y cumple el primero de los requisitos establecidos en la Estrategia Vasca de Empleo 2030, orientada al empleo de calidad, y seguirá desplegando sus acciones a lo largo del 2023.

Otro de los hechos más relevantes en esta legislatura ha sido que por primera vez Euskadi cuente con un Plan de Gestión de la Inspección de Trabajo, que además de reforzar este servicio público como garante de los derechos de las personas trabajadoras, hace una clara apuesta por la transparencia con la apertura de una web en la que rinde cuenta de sus actuaciones y con la participación de los agentes sociales a través de la creación de la Comisión Asesora de la Inspección de Trabajo de Euskadi. En 2023, se han creado 7 nuevas plazas en los Cuerpos de Inspección de Trabajo y 2 plazas en el Cuerpo de Subinspección, lo que implica un aumento del 31,8% en el Cuerpo de Inspección y un 10% en el Cuerpo de Subinspección desde el año 2020, año de inicio de la presente legislatura y que permiten reforzar la vigilancia y control de la legislación laboral, y la unidad de apoyo a la Subdirección con personal dedicado a las coordinación y apoyo tecnológico de la Inspección de Trabajo, una de las claves de refuerzo de la misma.

Además, en ese proceso de refuerzo y con el objetivo de promover los obstáculos socioeconómicos que impiden la igualdad a la función pública de la inspección, durante el año 2023 se ha implantado un sistema de becas para la preparación de las oposiciones de los Cuerpos de la Inspección de Trabajo de forma similar a las que ya existen para Jueces y Magistrados.

Dagoeneko bete den hirugarren gertaera bat da Soldata Arrakalari buruzko bi Kongresu egon direla, 2022ko eta 2023ko ekainean. Biltzar horretan, sensibilizazio-kanpainak eta legegintzaldi honetan egindako jardunaldi espezifikoak areagotuta, agerian geratu da Lan eta Enplegu Sailak erabaki duela emakumearen erabateko berdintasuna ur-marka bat izatea, politika guztiak zeharkatzen dituen, eta, gainera, enpresei konbentzitzen die berdintasun hori ez dela soilik justizia sozialaren kontua, baizik eta lehiakortasunaren eragilea ere, talentua erakartzeko lehia funtsezkoa den testuinguru batean trantsizio ekonomikoaren prozesuan. Horrez gain, Ikuskaritzari dagokio 50 langile baino gehiago dituzten enpresek berdintasun-planak izateko duten betebeharra betetzen dela zaintzea.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak, halaber, Elkarrietzeta Sozialaren Mahaia koordinatzeko ardura du. Mahai hori Gobernuaren eta gizarte-eragileen arteko esparru soziolaboraleko politika publikoen ituntze-foroa da, eta erabat finkatuta egon da 2019an sortu zenetik. Krisi pandemikoaren ondorioz, enpresei eta langileei erantzunak emateko gai izan zen, eta enplegua eta errentak babesteko neurri eraginkorrak adostu zituen. 2021., 2022. eta 2023. urteetan, bere lantaldeen jarduera normalizatu eta sistematizatu du, eta gardentasunera ere ireki da, tresnak sortuta, hala nola web berria, non bere jarduera helarazteko. 2024rako, partida espezifiko bat sartu dugu, Elkarrietzeta Sozialaren Mahaiaren lanak zabaltzeko eta hiru alderdiko elkarrietzeta politika soziolaboralak diseinatzeko eta ezartzeko duen garrantziaz sentsibilizatzeko, erabakiak hartzeko prozesu demokratikoan sakonduz.

Legegintzaldiaren honetako bosgarren gai nabarmenena Gizarte Ekonomiaren Sailen arteko Lehen Plana onartzea da. Plan hori alternatiba ekonomiko horretako familiekin eta Eusko Legebiltzarreko taldeekin adostu da. Horrela, gizarte-ekonomiari babes publiko handiagoa eman zaion unean, ekonomia soziala bultzatzea Sailak Kooperatiba eta Lan Sozietateekin batera egiten jarraituko duen enpresa- eta gizarte-garapenaren zati banaezina da. Kooperatiben mundua indartzearen aldeko apustua egiten dugu, eta langileek enpresetan duten parte-hartze aktiboa garatu nahi dugu. Horregatik, ALEekin eta ASLEekin batera konprometuta gauden eredu inklusibo parte-hartzaileen aurrera egiten jarraituko dugu.

Un tercer hito ya cumplido es la celebración de dos Congresos de Brecha Salarial en junio de 2022 y 2023 que, con la intensificación de las campañas de sensibilización y las jornadas específicas realizadas en esta legislatura, han puesto de manifiesto la determinación del Departamento de Trabajo y Empleo en que la igualdad plena de la mujer sea una marca de agua que atraviese todas las políticas, y que además convenza a las empresas de que esa igualdad no es sólo una cuestión de justicia social, sino motor de la competitividad en un contexto en el que la competencia por atraer talento está siendo esencial en el proceso de transición económica. A ello se suma la función que compete a la Inspección de vigilar el cumplimiento de la obligación de las empresas con más de 50 personas trabajadoras de contar con planes de igualdad.

La Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social tiene asimismo la responsabilidad de coordinar la Mesa de Diálogo Social, el foro de concertación entre Gobierno y agentes sociales de las políticas públicas del ámbito sociolaboral que ha alcanzado un estado de consolidación plena, desde su creación en 2019 y que con la crisis pandémica fue capaz de ofrecer respuestas a empresas y personas trabajadoras, acordando medidas eficaces para proteger el empleo y las rentas. En 2021, 2022 y 2023 ha normalizado y sistematizado la actividad de sus diferentes grupos de trabajo, y se ha abierto también a la transparencia con la creación de instrumentos, como la nueva web, en donde trasladar su actividad. Para el 2024, incluimos una partida específica que permita difundir los trabajos de la Mesa de Diálogo Social, así como a sensibilizar sobre la importancia del diálogo tripartito para el diseño e implementación de las políticas sociolaborales, profundizando en el proceso democrático de toma de decisiones.

La quinta cuestión más destacada en esta legislatura es la aprobación del Primer Plan Interdepartamental de la Economía Social, acordada tanto con las distintas familias de esta alternativa económica como con los grupos del Parlamento Vasco. De esta forma, en el momento de mayor apoyo público que haya habido a la economía social, su impulso forma parte indisoluble del desarrollo empresarial y social que el Departamento seguirá acometiendo junto a las Cooperativas y Sociedades Laborales. Apostamos por el reforzamiento del mundo cooperativo y queremos desarrollar la participación activa de las trabajadoras y trabajadores en el conjunto de las empresas. Por ello seguiremos avanzando en el modelo inclusivo participativo al que estamos comprometidos junto a ALE y ASLE.

Seigarren gai bat bereziki garrantzitsua izan da. Krisi pandemikoak eragindako geldialdi ekonomikoak ere ondorioak izan zituen hitzarmen kolektiboen berrikuntzan. Jardueraren susperraldi progresiboak, eta, batez ere, enplegu berriak berreskuratu eta sortzeko sendotasuna egiaztatu zenetik, hitzarmenen eguneratzea berreskuratzea ahalbidetu du, azken lan-erreforman negoziazio kolektiborako berreskuratutako paperak indartutako prozesu batean. Sail honek errespetu handiz jokatu du beti aldebiko negoziazio-esparru horrekin, baina eragile aktiboa izan da gatazkan dauden alderdiek beren esku-hartzea eskatu eta onartu duten bakoitzean, Laneko Zuzendaritzaren esku-hartzeari esker sustatutako 40 akordio baino gehiagorekin, eta horrek oihartzun handia izan du hobeto babestutako milaka pertsonatan, bai enpresa handietan, bai txikietan eta bereziki feminizatuetan, eta ziurtasun handiagoa ematen dio enpresa-jarduerari.

2024ari begira, lan-baldintzak hobetzeko eta enpresetan lan egin nahi duten pertsonen interesa erakartzeko helburu hori osatzeko, programa pilotu bat egingo da, osasunean, ingurumen-aztaman, berdintasunean, kontziliazioan eta produktibitatean izango duen eragina neurtzeko, besteak beste, soldata murriztu gabe lanaldia murriztuz, telelana aplikatuz eta enpresetan enpleguari eragiten dioten erabaki estrategikoetan langileak batera zehaztuz. Proiektu honen ondorioak gizarte-eragileen eskura jarriko dira, negoziazio kolektiboko prozesuetan kontuan har ditzaten.

Gertakari garrantzitsu horiei guztiei gehitu behar zaie lan-administrazioak bere eginkizuna bete behar duela, hau da, lan-baldintzak behar bezala aplikatzea erraztu behar duela, ikuskaritza- eta aholkularitza-eginkizunak betetz eta enpresa guztietan lan-araudia behar bezala betetzeko eta garatzeko formula zehatzak erakutsiz, lan-iruzurrari aurre eginez eta, beraz, gure ikuskapen-ekintza planifikatuan berretsiz, aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialeko kontratuak lege-iruzur bihurtzeko. Laneko Ikuskaritza indartuz, kantitatean eta kalitatean, gure zereginaren ezaugarri izango da.

Lan arloko gai estrategiko horiek guztiek finkapena behar dute, eta hori aurrekontu-partiden bitartez gauzatzen da, ahaztu gabe Gizarte Segurantzaren kudeaketa-politiken transferentziak arreta espezifiko eskatzen duela, Sailetik lankidetzan arituko garen moduan, Seguratasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren transferentziarekin bezala. Azken horrek, zalantzarik gabe, Osalan indartuko du eta Laneko Ikuskaritzaren transferentzia osatuko du.

Ziurgabetasun-garai hauetan, osasun-krisiaren ondoren eta garai honetan gertatu diren fenomeno disruptiboen esperientziarekin, kalitatezko enplegua lortzeko ditugun tresnak indartuko ditugu; Elkarriketa Sozialarekin batera, funtsezko elementuak dira lan-mundu zail eta aldakorrean irtenbideak bilatzeko, non arreta espezifiko behar baita emakume langileentzat eta zahartze demografikorako, inor atzean utzi gabe.

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZA

Hay una sexta cuestión que ha sido especialmente trascendente. El parón económico por la crisis pandémica tuvo también consecuencias en un parón en la renovación de los convenios colectivos. La progresiva recuperación de la actividad y, sobre todo, desde que se constató la solidez en la recuperación y creación de nuevos empleos ha permitido recuperar la actualización de los convenios, en un proceso fortalecido por el papel recuperado para la negociación colectiva en la última reforma laboral. Este Departamento ha sido siempre extraordinariamente respetuoso con ese ámbito bilateral de negociación, pero ha sido agente activo en cada una de las ocasiones en las que las partes en conflicto han solicitado y aceptado su intervención, con más de 40 acuerdos propiciados gracias a la intervención de la Dirección de Trabajo, con una repercusión que se traduce en miles de personas mejor protegidas, tanto en grandes empresas como en pequeñas y especialmente feminizadas, y ofreciendo mayor certeza para la actividad empresarial.

De cara a 2024, este objetivo de mejorar las condiciones laborales y hacer más atractivas a las empresas para atraer el interés de personas que quieran trabajar en ellas, se va a complementar con el ensayo de un programa piloto que mida el impacto en la salud, la huella ambiental, la igualdad, la conciliación y la productividad, entre otras cuestiones, mediante la reducción de jornada sin reducción de salario, la aplicación del teletrabajo y la codeterminación de las personas trabajadoras en las decisiones estratégicas de las empresas que afecten al empleo. Las conclusiones de este proyecto se pondrá a disposición de los agentes sociales para que puedan tenerlas en cuenta en los procesos de negociación colectiva.

A todo ello se suma que la administración laboral debe desplegar su función, facilitadora de la correcta aplicación de las condiciones de trabajo, mediante el ejercicio de las funciones inspectoras y consultoras y mostrando las precisas fórmulas del correcto cumplimiento y desarrollo de la normativa laboral en todas las empresas, combatiendo el fraude laboral y por lo tanto reafirmandonos en nuestra acción inspectora planificada en la transformación de los contratos temporales y los contratos a tiempo parcial en fraude de ley. Reforzar la Inspección de Trabajo en cantidad y calidad será seña de identidad de nuestro quehacer.

Todas estas cuestiones estratégicas del área de Trabajo necesitan de una consolidación que se traslada a través de las diferentes partidas presupuestarias, sin perder de vista que la transferencia de las políticas de gestión de la seguridad social requiere una atención específica en la que colaboraremos desde el Departamento, del mismo modo que con la transferencia del Instituto Nacional de Seguridad e Higiene que sin duda reforzará Osalan y el completar la transferencia de la Inspección de Trabajo.

En estos tiempos de incertidumbres, tras la crisis sanitaria y con la experiencia de los fenómenos disruptivos que se han sucedido en este tiempo, reforzaremos los instrumentos que tenemos para la consecución del empleo de calidad; junto al Diálogo Social conforman los elementos claves en la búsqueda de soluciones en un mundo de trabajo difícil y cambiante en la que se requiere una atención específica a las mujeres trabajadoras y al envejecimiento demográfico y sin que dejemos a nadie atrás.

DIRECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, ekitaldi honetan, lan-arloko eta lan-arriakuen prebentzio indarreko araudiaren arabera lan-agintaritzak gisa dagozkion eskumenak egikaritu ditu. Era berean, elkarriketa soziala sustatuko du lan-harremanak garatzeko, eta administrazio-kudeaketa hobetzen jarraituko du, administrazio elektronikoa eta herritarrekiko komunikazioa ezarritik. Ondorioz, Zuzendaritza honek 2024an honako ekintza hauek egitera bideratuko du bere jardura:

Enpresetako lan-baldintzak lan arloko legeekin bat datozela zaintzea, Administrazioaren eta administratuen arteko segurtasun juridikoa bermatuz.

Soldata-arrakala mugatzeko neurriak bultzatzea, bai herritar guztiak sentibilizatzeari dagokionez, bai berdintasun-batzordeetako kideen prestakuntzari dagokionez, berdintasun-planak negoziatzeko eta aldagai hori negoziatzeko kolektiboan nola txertatu aztertzeak, besteak beste.

Enplegua erregulatzeak espedienteak izapidetzea, betiere, enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariaren arteko akordioa bultzatzen bada.

Birziklatze-ikastaroen inguruko informazioa.	30	Información sobre cursos de reciclaje.
3. HAEEko ELEBI programarako taldeak antolatzea.		3. Organizar grupos para el programa ELEBI del IVAP.
Talde kopurua.	2	Número de grupos.
4. HAEEk eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Sailari egindako eskaerak artatzea.		4. Atender a las peticiones que el IVAP y la Viceconsejería de Política Lingüística realiza al Departamento.
Eskaera kopurua.	20	Número de peticiones.
5. Kanpainen komunikazio eta zabalkundea.		5. Comunicación y difusión de campañas.
Publizitate eta difusio kanpainak (Euskaraldia, Euskararen Eguna, Korrika, etabar).	3	Campañas de publicidad y difusión (Euskaraldia, Euskararen Eguna, Korrika, etc.).
Bestelako materialen banaketa (hiztegiak).	1	Reparto de otros materiales (diccionarios).
6. Lakuako egoitzan Mintza taldeak antolatzea eta koordinatzea, euskararen ahozko erabilera bultzatzeko.		6. Organización y coordinación de grupos de práctica en la sede de Lakua para la promoción del uso del euskera oral.
Bertaratutako langileak.	100	Asistentes.
10. SAILAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATU ETA KOORDINATzea		10. IMPULSAR Y COORDINAR LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEL DEPARTAMENTO
Sailaren berdintasun-arloko plangintza estrategikoa prestatzea.	1	Elaborar la planificación estratégica en materia de igualdad del Departamento.
Sailaren berdintasunaren alorreko urteko jardueraren ezarpena koordinatzea eta bultzatzea.	75	Coordinar e impulsar la implementación de la actividad anual en materia de igualdad del Departamento.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Berdintasunaren arloan aurreko ekitaldiko jardueren betearazpena ebaluatzea. (Sailetakoko ebaluazio-fitxak).	40	Evaluar la ejecución de actuaciones del ejercicio anterior en materia de igualdad. (Fichas de evaluación departamentales).
Berdintasunaren alorreko laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea saileko teknikari eta politikariei.	24	Realizar la asistencia y el asesoramiento técnico en materia de igualdad al personal técnico y político del departamento.
Solaskidetza teknikoa eta koordinazioa berdintasunaren arloan eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin, sailen artean eta erakundeen artean.	11	Interlocución técnica y coordinación con entidades, órganos y unidades competentes en materia de igualdad a nivel interdepartamental e interinstitucional.
Berdintasunaren arloko barneko eta kanpoko aholkularitzako txostenak eta dokumentuak egitea.	15	Elaborar informes y documentos de asesoramiento interno y externo en materia de igualdad.
Berdintasunaren alorreko kontsultei erantzutea eta komunikazio eta informazioak zabaltzea.	30	Atender consultas y difundir comunicaciones e informaciones en materia de igualdad.
11. SAILAREN ANTOLAKETAREN, BALIABIDEEN ETA EGINKIZUN BATERATUEN INGURUKO LAGUNTZA ETA KOORDINAZIOA		11. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONES DE NATURALEZA COMÚN, DEL DEPARTAMENTO
1. Sailaren jarduera garatzeko behar diren toki, ekipamendu (informatikoa izan ezik), ibilgailu eta gainerako baliabide materialen beharrei erantzutea.		1. Atención a las necesidades de espacio y equipamiento (excepto el informático), vehículos y restantes medios materiales requeridos para el desarrollo de la actividad departamental.
Langile-zerrenda.	281	Plantilla personal.
2. Prestakuntza-planetakoko ikastaroak.		2. Cursos de los planes de formación.
Bertaratutako langileak.	150	Asistentes.
3. Prestakuntzako beste jarduera batzuk (jardunaldiak, mintegiak, etab.).		3. Otras actividades formativas (jornadas, seminarios, etc.).
Bertaratutako langileak.	20	Asistentes.
4. Gobernu Kontseiluan aztertu beharreko sailaren gaiak bidaltzea eta, halaber, EHAAri igortzea.		4. Remisión de los asuntos del Departamento que han de ser tratados en el Consejo de Gobierno, así como los traspasos al BOPV.
Gobernu Kontseiluari.	120	A Consejo de Gobierno.
EHAARI.	190	Al BOPV.
Bestelako espedienteak.	150	Otros expedientes.
12. LAN ETA ENPLEKUKO EGITURA ETA LAGUNTZA, LANBIDE		12. ESTRUCTURA Y APOYO DE TRABAJO Y EMPLEO, LANBIDE
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren 3110 programa finantzatzea.		Financiación del Programa 3110 del OO.AA. Lanbide Servicio Vasco de Empleo.
Bere azalpen-memoria, bai eta helburu zehatzen garapena ere, erakunde autonomoa atalaren barruan gehitu da.		Su memoria explicativa, así como el desarrollo de los objetivos concretos queda incluido dentro del apartado OO.AA.

PROGRAMA

3112 LANA

ARDURADUNA

LANA ETA ENPLEGUA

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA

3112 TRABAJO

RESPONSABLE

TRABAJO Y EMPLEO

DIRECTOR DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

MEMORIA

Lan eta Enplegu Sailari dagozkion egitekoen eta jardun-arloen artean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikuluan ezarrita daudenak, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari dagokio lan-harremanen eta Gizarte Segurantzaren arloko lan-legeria betearaztea, Autonomia Estatutuan aurreikusitako baldintzetan.

Horrela, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak, 2024ko ekitaldian, lan-arloan indarrean dagoen araudiaren arabera lan-agintaritza gisa dagozkion eskumenak gauzatzeko jarraituko du, betiere gardentasunaren eta gizarte-eragileekiko etengabeko elkarriketaren printzipioekin.

Era berean, elkarriketa soziala eta gizarte-ituna bultzatuko ditu lan-harremanak garatzeko, eta administrazio-kudeaketa hobetzen jarraituko du, administrazio elektronikoa eta herritarrekiko komunikazioa ezarritik.

Lan-agendan, Gizarte Elkarriketaren Mahaiarekin lankidetzan aritzeaz gain, 2024an honako ekintza hauek egingo dira:

- Enpresetako lan-baldintzak lan-arloko legeriarekin bat datozela zaintzea, Administrazioaren eta administratuen arteko harremanetan segurtasun juridikoa bermatuz.
- Enplegu-erregulazioaren espedienteak izapidetzea, une oro enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariaren arteko akordioa sustatuz.

Dentro de la atribución de funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento de Trabajo y Empleo, y que están establecidas en el artículo 6 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, recae en la Dirección de Trabajo y Seguridad Social la Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales y de la Seguridad Social en los términos previstos en el Estatuto de Autonomía.

Así la Dirección de Trabajo y Seguridad Social continuará teniendo como eje de su actividad, en el ejercicio 2024, el ejecutar las competencias que como autoridad laboral le corresponden según la normativa vigente en materia laboral, siempre con los principios de transparencia y diálogo permanente con los agentes sociales.

En este sentido se seguirá potenciando el diálogo social y el fomento de la concertación social, para el desarrollo de las relaciones laborales y continuando con la mejora en la gestión administrativa a través de la implantación de la administración electrónica y en la comunicación con la ciudadanía.

En la agenda de trabajo, además de la colaboración con la Mesa del Diálogo Social, durante 2024 se realizarán las acciones que a continuación se señalan:

- Tutelar que las condiciones de trabajo en las empresas sean acordes a la legislación en materia laboral, garantizando la seguridad jurídica en las relaciones Administración-administrados/as.
- Tramitar los expedientes de regulación de empleo, impulsando en todo momento el acuerdo entre la dirección de la empresa y la representación de las y los trabajadores.

- Gizartearentzat funtsezkoak diren zerbitzuen funtzionamenduari eragiten dioten grebetan, eta oinarrizko eskubide hori errespetatuz, gizartearentzat funtsezkoak diren zerbitzuen funtzionamendu hori bermatzeko egin beharreko gutxieneko zerbitzuak finkatzea, bereziki osasun publikoari eragiten dion funtsezko zerbitzua denean.

- Lantokietan, pribatuetan zein publikoetan, lan-segurtasuna eta lan-osasuna kontrolatzea, istripu-tasa murrizteko eta prebentzioaren arloan kultura sortzeko.

- Lan-eremuan gizarte-eragileekin elkarriketa arina sustatzea, lan-harreman baketsuak lortzeko. Eta, laneko gatazka kolektiboetan bitartekotzaren bidez, alderdietako aldeentzako konponbide baliadunak bultzatzea.

- Enpresaburu-elkarteen eta erakunde sindikalen giza baliabideen prestakuntza sustatzea, lan-harremanetan duten funtsezko eginkizuna indartzeko.

- Lan Zuzendaritzako teknikarien eta Lan Ikuskarrien prestakuntza sustatzea, erronka berriei aurre egiteko.

- Hainbat estamenturekin lankidetzan aritzea (UPV/EHU, Jazarpen eta Diskriminazioari buruzko Euskal Behatokia, Lan Harremanetako Graduatuak Euskal Kontseilua), herritarrei laneko araudia betetzen den kontrolatzeko ikerketak eta informazio-kanpainak egiteko.

- Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduna eta Hauteskunde Sindikalen datuak genero-ikuspegiarekin argitaratzea sustatzea.

- Egoera soziolaboralaren bilakaerari buruzko estatistikak eta datuak argitaratzea, baita gai horri buruzko monografikoak ere.

- Langile ahulenen eta prekarioen kolektiboek beren eskubideak defendatzeko tresnak eskura ditzaten sustatzea, hala nola salaketa anonimoko postontzia edo Gizarte Graduatuak Elkargoek kudeatzen dituzten gizarte- eta lan-arloko informazio-guneak.

- Produktu estatistikoak eta informatikoak hobetzea, herritarrekiko interkomunikazio arinagoa sustatzearren. Horretarako, izapidetze telematikoa betetzeko eredu eta jarraibideak jarriko dira herritarren eskura, bai eta gai garrantzitsuei buruzko informazioa ere, hala nola lan-egutegia, berdintasun-planak, grebak, hitzarmen kolektiboak, aldi baterako laneko enpresak, langileen nazioz gaindiko lekualdaketa, adingabeen lana, lan-arriskuen prebentzioa, zehapenak, eta abar.

- En las huelgas que afecten al funcionamiento de los servicios esenciales para la comunidad, y respetando el ejercicio de ese derecho fundamental, fijar los Servicios Mínimos a realizar para garantizar ese funcionamiento de servicios esenciales para la comunidad, con especial relevancia cuando se trata de un servicio esencial que afecta a la salud pública.

- Controlar la seguridad y salud laboral en los centros de trabajo, tanto privados como públicos, para reducir la siniestralidad y generar una cultura en materia preventiva.

- Promover un diálogo fluido con los agentes sociales en el ámbito laboral a fin de conseguir unas relaciones laborales pacíficas. E impulsar, a través de la intermediación en los conflictos colectivos de trabajo, soluciones válidas para las partes en los mismos.

- Fomentar la formación de los recursos humanos de las asociaciones empresariales y organizaciones sindicales, como forma de reforzar su papel fundamental en las relaciones laborales.

- Fomentar la formación de los técnicos de la Dirección de Trabajo y de los Inspectores de Trabajo para afrontar los nuevos retos.

- Colaborar con distintos estamentos, principalmente con UPV/EHU, Observatorio Vasco sobre acoso y discriminación, entre otros, en la realización de estudios y campañas de información ciudadana sobre control del cumplimiento de la normativa laboral.

- Potenciar la actuación del Comité de Elecciones Sindicales y la publicación de los datos de Elecciones Sindicales con perspectiva de género.

- Publicar estadísticas y datos de evolución de la situación sociolaboral, así como monográficos sobre esta materia.

- Fomentar el acceso de los colectivos de trabajadores más vulnerables y precarios a los instrumentos de defensa de sus derechos, como puede ser el buzón de denuncia anónimo o los puntos de información sociolaboral que gestionan los Colegios de Graduados Sociales.

- Mejorar los productos estadísticos e informáticos en aras a fomentar una intercomunicación más fluida con la ciudadanía, poniendo a su disposición diversos modelos e instrucciones de cumplimentación de tramitación telemática, así como información sobre temas de importancia como son: calendario laboral, planes de igualdad, huelgas, convenios colectivos, empresas de trabajo temporal, desplazamiento transnacional de trabajadores, trabajo de menores, prevención de riesgos laborales, sanciones, etc.

Halaber, adierazi dugun bezala, gizarte-eragileen arteko elkarriketa, eta gobernuarekiko elkarriketa, ezinbesteko faktoretzat hartzen dugu gero eta aldakorragoa den gizarte batean, mundu globalizatu batean, arazoak konpontzeko, gizarte osoaren ongizatea eta garapen ekonomikoa hobetzera bideratuta. Horregatik, urtarilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren bidez Elkarriketa Sozialeko Mahaia instituzionalizatu ondoren, akordioak lortzeko lan egingo dugu, funtsezko tresna baita demokrazia hobetzeko, gizarteak, bere gizarte-eragileetan modu zibilean antolatuta, politika soziolaboralen diseinuan eta ezarpean parte hartuz.

2024ko aurrekontuan, oraindik ere kopuru espezifikoak aurreikusten dira soldata-arrakalaren aurkako ekintza-planean jasotako ekintzak gauzatzeko; adibidez, informazio-kanpaina berri bat, Euskadin negoziatzen diren hitzarmen kolektibo guztien soldata-arrakala desagerrarazteko beharraz kontzientziatzeko, Lan-Ikuskaritzan diskriminazio-egoerak salatzea sustatuz. Horrez gain, Soldata Arrakalari buruzko Nazioarteko III. Kongresua egingo da.

2024ko aurrekontuan aurreikusten dira, halaber, 2020an transferitutako Estatuaren eskumenetik eratorritako dirulaguntzak, industria-birmoldaketako enpresetan aurre-erretiratutako langileentzako dirulaguntzen espedienteak izapidetzeari dagokionez.

Berrikuntza esanguratsua pertsonen kudeaketan berrikuntza-proiektua garatzeari dagokio, 2023an diseinatu zena. Proiektu horrek, biharko lana diseinatzeko garrantzitsutzat jotzen diren gutxienez hiru gairi buruzko azterlanak eta txostenak egitea hartuko du barne. Honako hauei buruz ari gara: langileek enpresen kudeaketan parte hartzearen onurei, kostuei eta arrakasta-baldintzei buruzko azterlana (kodeterminazioa); azterketa kualitatibo eta kuantitatibo bat, urruneko lanaren eragina neurtzeko eta telelanaren hedapena Euskadin probatzeko aukera emango duena; eta lanaldi-murrizketaren eragina aztertuko duen proiektu pilotu bat ezartzea (genero-ikuspegiarekin), dela egunen murrizketan, dela lanaldi-murrizketan, dela enpresen/erakundearen eraginkortasunean eta pertsonen ongizatean. Proiektua gauzatzeko, dirulaguntza izenduna emango zaio FABRIKA Fundazioari, aurreikusitako azterketa konparatiboak egiteko edo ausazko proba kontrolatuak kudeatzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egin ditzan, betiere ospe handiko zorrotasun akademiko eta ikertzailetik abiatuta.

Además, como ya hemos apuntado, entendemos el dialogo social entre los agentes sociales, y de éstos, con el Gobierno como un factor imprescindible para resolver los problemas en una sociedad cada vez más cambiante, en un mundo globalizado, dirigiéndolo a mejorar el bienestar del conjunto de la sociedad y a su desarrollo económico. Por ello, tras la institucionalización de la Mesa de Diálogo Social a través del Decreto 3/2019, de 15 de enero, trabajaremos para alcanzar acuerdos, al ser éste un instrumento fundamental para la mejora de la democracia a través de la participación de la sociedad, civilmente organizada en sus agentes sociales, en el diseño e implantación de las políticas socio laborales.

En el presupuesto de 2024, se continúan previendo cantidades específicas para la realización de las acciones incluidas en el plan de acción contra la brecha salarial, como son una nueva campaña informativa para concienciar la necesidad de la erradicación de la actual brecha salarial de todos los convenios colectivos que se negocian en Euskadi, fomentando la denuncia de situaciones de discriminación ante la Inspección de Trabajo, además de celebrar el III Congreso Internacional sobre la Brecha Salarial.

También se prevén en el Presupuesto de 2024 las subvenciones derivadas de la competencia estatal transferida en 2020 referida a la tramitación de los expedientes de subvención para trabajadores prejubilados en empresas en reconversión industrial.

La novedad más significativa se refiere al desarrollo del proyecto de innovación en la gestión de las personas y que se diseñó durante el año 2023. Este proyecto incluirá estudios y la elaboración de informes de, al menos, tres cuestiones que se consideran trascendentes para diseñar el trabajo del mañana. Nos referimos al estudio sobre los beneficios, costes y condiciones de éxito de la participación de las personas trabajadoras en la gestión de las empresas (codeterminación); a un estudio cualitativo y cuantitativo, que permita medir el impacto del trabajo en remoto y testar la extensión del teletrabajo en Euskadi y la implantación de un proyecto piloto que estudie (con perspectiva de género) el impacto de la reducción de la jornada laboral, sea en reducción de días, sea en reducción de jornada, en la efectividad de las empresas /organizaciones y el bienestar de las personas. El proyecto se materializa en una subvención nominativa a la Fundación FABRIKA a fin de que pueda realizar cuantas gestiones sean necesarias para la realización de los estudios comparativos o la gestión de las pruebas controladas aleatorias, que se prevean, siempre desde un rigor académico e investigador de reconocido prestigio.

Euskal Lan-ikuskaritzak, bere araudi erregulatzailearen arabera (23/2015 Legea, LGSren sistema antolatzen duena) esleitura dituen eskumenak garatuko ditu, hau da, Autonomia Erkidegoaren eskumeneren esparruan (lan-harremanak, segurtasuna eta osasuna eta enplegua) gizarte-arloko araudia betetzen dela zaintzea, Estatuaren eskumenerako gaitan ere (Gizarte Segurantzak) ekintza-batasunaren printzipioari jarraiki jarduteari kalterik egin gabe eta Eusko Jaurlaritzaren eta A.G.Eren arteko ezinbesteko lankidetzagatik, LGSren Euskal Kontseiluan lortutako akordioetan islatuta, hura baita sistema koordinatzeko organo gorena. Aipatutako arloetan ikuskaritza-funtzio publikoa betetzeko, giza baliabide eta baliabide material egokiak izan behar dira, eta Lan eta Enplegu Sailak apustu egin du 2023ko ekitaldirako Lan Ikuskaritzaren giza baliabideak indartzearen alde, bai eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikuskaritzaren zuzendaritza-egitura hobetzearen alde ere. 2024an, beka-sistema bat garatuko dugu, ikuskaritza-kidegoetarako oposizioen prestakuntza sustatzeko eta baliabide gutxien dituzten pertsonen aukera emateko. Gainera, 2024an Kale Nagusia 50eko (Bilbo) obrak hasiko dira, instalazioak hobetzeko, batez ere eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Hori dela eta, beharrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskatzailetzarentzat aldi baterako kokapena bilatzea. Hori dela eta, gastuak ordaintzeko partidak aurreikusi behar dira.

Zehazki, legealdiaren hasieratik, Euskadiko Lan Ikuskaritza indartu nahi izan da, eta planifikatutako jarduera baten bidez, funtsezko tresna bihurtu da langileen enplegu integralaren kalitatea handitzeko. Enpleguaren kalitatea da gure helburu nagusia, eta barne hartzen ditu aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratazioetan iruzurraren aurkako ikuskapenak bultzatzea, garrantzi handiko lan-baldintzen kontrolean (lanaldiak eta ordutegiak) esku-hartzea areagotzea, laneko segurtasunerako eta osasunerako eskubidea errealitate izan dadin eraginkorragoak izateko lan egitea, eta berdintasuna sustatzea alderdi guztietan, emakumeen eta gizonen arteko lan-harremanetan eta, bereziki, Arrakala ezabatzea.

Legegintzaldian 50 langile baino gehiago dituzten enpresa guztien berdintasun-planak hedatzeko ikuskapena izango da Lan Ikuskaritzak esku hartuko duen beste kanpaina planifikatuetakoa bat.

Lan eta Gizarte Segurantzak Zuzendaritzak zuzenean kudeatu eta bultzatuko du salaketan postontzi anonimoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari laguntzeko tresna gisa, lan-legeria betetzearen alde.

Bestalde, langileek euren lanpostuetan duten segurtasuna, higieena eta osasuna sustatzeari buruz erakunde autonomoa den OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak egiten dituen jardun guztiak finantzatzeko transferentziak egitea aurreikusi da. Bereziki zainduko da gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planak errespetatzea balio bereko lanak egiten dituztenean eta genero-ikuspegiarekin egin behar dugun sustapena, eta 2021-2026 aldirako Euskal Segurtasunaren Estrategia gauzatzeko ari dela kontuan hartuta.

La Inspección de Trabajo Vasca, desarrollará las competencias que tiene atribuidas conforme a su normativa reguladora (Ley 23/2015 ordenadora del sistema de la ITSS) que consisten en vigilar el cumplimiento de la normativa del orden social en el ámbito de las competencias autonómicas (relaciones laborales, seguridad y salud y empleo) sin perjuicio de su actuación también en las materias de competencia estatal (seguridad social) por el principio de unidad de acción de los funcionarios que integran el sistema, y por la necesaria colaboración entre Gobierno Vasco y A.G.E. plasmada en los acuerdos alcanzados en el seno del Consejo Vasco de la ITSS, máximo órgano de coordinación del sistema. Para el ejercicio de la función pública inspectora en las señaladas materias se debe contar con los recursos humanos y materiales adecuados. En el año 2024 desarrollaremos el sistema de becas que fomenten la preparación de las oposiciones a los diferentes cuerpos de inspección y que permiten el acceso a estas de personas con menos recursos. Además, en el año 2024 se iniciarán las obras de Gran Vía, 50 (Bilbao) para mejorar las instalaciones, especialmente mejorando su eficiencia energética, lo que hará necesario buscar una ubicación temporal para la Inspección de Trabajo del País Vasco por lo que deben preverse partidas que satisfagan los gastos que se deriven.

En particular, desde el inicio de la legislatura se ha querido potenciar la Inspección de Trabajo en Euskadi, que mediante una actuación planificada se convierte en herramienta fundamental para incrementar la calidad del empleo integral de los trabajadores y trabajadoras. Calidad de empleo que es nuestro máximo objetivo e incluye potenciar las inspecciones contra el fraude en las contrataciones temporales, estacionales y a tiempo parcial, intensificar su intervención en el control de condiciones laborales de gran relevancia como jornadas y horarios, trabajar destinando más efectivos para que el derecho a la seguridad y salud en el trabajo sea una realidad, así como promover la igualdad en todos los aspectos en las relaciones laborales entre mujeres y hombres y en particular eliminar la brecha salarial.

La Inspección por la extensión de los planes de igualdad en la legislatura de todas las empresas con más de 50 trabajadores será otra de las campañas planificadas en las que intervendrá la Inspección de Trabajo.

Directamente desde la Dirección de Trabajo y Seguridad Social se gestiona y se potenciará el buzón anónimo de denuncias, como una herramienta de apoyo a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, en defensa del cumplimiento de la legislación laboral.

En otro orden de cosas, se contemplan las transferencias al organismo autónomo Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN con el objetivo de financiar todas las actividades del Instituto que se refieren a la promoción de la seguridad, higiene y salud de los trabajadores en el puesto de trabajo, con especial incidencia en el respeto de los planes de igualdad entre hombres y mujeres cuando realicen trabajos de igual valor y la promoción que debemos realizar con perspectiva de género y teniendo en cuenta que desde el año 2021 se está materializando la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud 2021-2026.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. EAEko LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO ERAKUNDEA 1. OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari bere funtzioak betetzeko beharrezko aurrekontu-zuzkidurak transferitzea. Transferentziak.	4	1. INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORAL 1. Transferir al Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN las dotaciones presupuestarias necesarias para el ejercicio de sus funciones. Transferencias.
2. LANEKO IKUSKARITZA 1. Goi-mailako koordinazioa zein zuzendaritza eskuratzea eta Laneko Ikuskaritzaren funtzionamendua zaintzea Autonomia Erkidegoaren eremuan. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailaren arteko lankidetzat-hitzarmenean jasotzen diren akordioen garapena sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez. Laneko Ikuskaritzak 2024rako izango dituen helburuak zehaztea. Helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrola egitea 2024. Bilerak. Kanpaina bereziak garatzea honako arlo hauetan: lan arloko ezbeharrak, denborazkotasuna, lanaldi partzialeko kontratazioa, pertsona desgaituen kontratazioa eta genero berdintasuna. Ezohiko jarduketa-kanpainak egitea Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunari dagozkion gaietan. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegora eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Ikuskatzaileordeen Kidegora sartzeko oposizioak prestatzeko beken deialdia egitea.	5 1 40 97 8 1	2. INSPECCIÓN DE TRABAJO 1. Ostentar la dirección y coordinación superior y velar por el funcionamiento de la Inspección de Trabajo en el ámbito de la Comunidad Autónoma. Impulsar el desarrollo de los acuerdos contemplados en el Convenio de colaboración entre el Ministerio de Empleo y Seguridad Social y el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco en materia de organización y funcionamiento de la Inspección de Trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Establecer los objetivos para 2024 de la Inspección de Trabajo. Efectuar el seguimiento y control de la ejecución de los objetivos 2024. Reuniones. Realizar campañas de actuación en materias de siniestralidad, temporalidad, contratación a tiempo parcial, contratación de personas con discapacidad, así como en igualdad de género. Realizar campañas extraordinarias de actuación en las materias relacionadas con la Igualdad de Hombres y Mujeres. Convocar becas para la preparación de oposiciones de acceso a los Cuerpos de Inspectores/as de Trabajo y Seguridad Social y de Subinspectores/as Laborales de Seguridad y Salud Laboral.
3. LAN-ANTOLAMENDUA ETA LAN-HARREMANAK 1. Lan-arloko agintaritzaren zereginak gauzatzea. Enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetu, legeria interpretatzeko jarraibide bateratuak emanez, horien izapideak arintzeko. Lan-arloko zehapen-espedienteak izapidetu eta ebaztea. Ezinbesteko zerbitzuen espedienteak izapidetzea, Inplikaturako eragileen elkarriketa sustatuz.	600 1.100 300	3. ORDENACIÓN LABORAL Y RELACIONES LABORALES 1. Ejercer las funciones de autoridad laboral. Instruir los expedientes de regulación de empleo, dictando directrices unificadoras de interpretación de la legislación para agilizar la tramitación de los mismos. Tramitar y resolver los expedientes de sanciones en el orden laboral. Instruir expedientes de servicios esenciales, fomentando el diálogo de los agentes implicados.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Banakako adiskidetzen espedienteak izapidetu eta ebaztea.	26.000	Tramitar y resolver expedientes de conciliaciones individuales.
Aldi baterako laneko enpresak baimentzeko espedienteak izapidetu eta ebaztea, baita enpresa erabiltzaileen esanetara jartzeko hitzarmenak kontrolatzea ere.	15	Tramitar y resolver expedientes para la autorización de empresas de trabajo temporal y control de los contratos de puesta a disposición a empresas usuarias.
Lan-gatazketan bitartekotza egitea: bilerak gizarte-eragileekin, baita enpresa eta langileekin ere.	150	Intermediar en conflictos laborales: Reuniones con los agentes sociales, así como con las empresas y las y los trabajadores.
2. Enpresa-elkarte eta sindikatuetak giza baliabideen prestakuntza sustatzea.		2. Fomentar la formación de los recursos humanos de las asociaciones empresariales y organizaciones sindicales.
Prestakuntza planak garatzeko diru-laguntzen espedienteak tramitatzea.	10	Tramitar los expedientes de subvención para el desarrollo de planes formativos.
Industria-birmoldaketako enpresetan aurre-erretiroa hartu duten langileentzako diru-laguntzen espedienteak izapidetzea.	15	Tramitar los expedientes de subvención para trabajadores prejubilados en empresas en reconversión industrial.
Ikastaroak aurrez ezarritako helburuetara egokitzen direla bermatzea.	850	Controlar la adecuación de los cursos a los objetivos propuestos.
Irakasleak egokiak direla bermatu eta parte-hartzaileen asistentzia kontrolatzea.	24.600	Supervisar la idoneidad del profesorado así como la asistencia de los participantes.
3. Honako erregistro hauen hasierako inskripzioa eta aldaketak egitea:		3. Inscripción inicial y modificaciones en los Registros de:
Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.	50	Asociaciones sindicales y empresariales.
Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak ziurtagiriak.	300	Certificados asociaciones sindicales y empresariales.
Hitzarmen kolektiboak eta berdintasun-planak.	275	Convenios colectivos y planes de igualdad.
Eraikuntzaren sektoreko enpresa egiaztatuen erregistroa.	1.200	Registro de empresas acreditadas en el sector de la construcción.
Aldi baterako laneko enpresak.	15	Empresas de trabajo temporal.
Prebentzio-zerbitzu gisa egiaztatutako erakundeak eta auditoriak egiteko baimendutako pertsona edo erakundeak erregistroko hasierako inskripzioa eta aldaketak.	30	Inscripción inicial y modificaciones en el registro de entidades acreditadas como servicios de prevención y de personas o entidades autorizadas de auditoría.
EAEko laneko arriskuak prebenitzeko ordezkarien erregistroko hasierako inskripzioa eta aldaketak.	2.000	Inscripción inicial y modificaciones en el registro de delegadas y delegados de prevención de riesgos laborales de la CAPV.
Laneko arriskuak prebentzioaren arloan oso arau-hauste larriak egiteagatik zigortutako enpresen erregistroko hasierako inskripzioa eta aldaketak.	10	Inscripción inicial y modificaciones en el registro de empresas sancionadas por infracciones muy graves en materia de prevención de riesgos laborales.
Lantokien irekiera.	82.000	Aperturas de centros de trabajo.
Amianto-arriskua duten enpresak eta amianto kentzeko planak.	900	Empresas con riesgo de amianto y planes de desamiantado.
4. LAN-EZBEHARRAK		4. SINIESTRALIDAD LABORAL
1. OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Kontseilu Orokorrean parte hartzea.		1. Participar en el Consejo General de OSALAN-Servicio Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
OSALANeko Kontseilu Orokorraren bileretara joatea lan-agintaritza gisa.	6	Asistir en calidad de autoridad laboral a las reuniones del Consejo General de OSALAN.
OSALANen eta Laneko Ikuskaritzaren jarduerak koordinatzea lan-agintaritza gisa.	1	Coordinar como autoridad laboral las actuaciones de OSALAN y la Inspección de Trabajo.
2. Lan-arloko agintaritzaren zereginak gauzatzea.		2. Ejercer las funciones de autoridad laboral.
IGATT.- Istripu-parteen erregistroa.	120.000	IGATT.- Registro de partes de accidente.
3. Ikuskapena eta zehapen-jarduerak		3. Inspección y actuaciones sancionadoras.
Ikuskapenak.	6.050	Inspecciones.
Arau-haustekak.	650	Infracciones.
4. Laneko istripuen eta osasunaren prebentzioa bultzatzea.		4. Impulso de la prevención de los accidentes y salud Laborales.
Jardunaldietan, ikastaroetan, mintegietan eta abarretan parte hartzea.	10	Participación jornadas, cursos, seminarios, etc.
5. HAUTESKUNDE SINDIKALAK		5. ELECCIONES SINDICALES
1. Sindikatuentzako diru-laguntzen espedienteak, euren ordezkagarritasunaren arabera.		1. Expedientes de subvención a centrales sindicales según su representatividad.
Espediente-kopurua.	20	Nº Expedientes.
2. Sindikatuen Hauteskundeetarako Bulego Publikoa.		2. Oficina Pública de Elecciones Sindicales.
Txostenak.	4	Informes.
Sindikatu hauteskundeetako espedienteak bideratzea.	2.500	Tramitar expedientes de elecciones sindicales.
Hauteskunde sindikalen arloan aldez aurretiko abisuak, aktak, aurka-egiteak eta laudoak erregistratzea.	4.000	Registrar preavisos, actas, impugnaciones y laudos de elecciones sindicales.
Sindikatu hauteskundeetako Batzordearen diru-laguntzen espedienteak bideratzea.	4	Tramitar los expedientes de subvención del Comité de Elecciones Sindicales.
Bilerak Sindikatuen Hauteskundeetako Batzordearekin.	60	Reuniones del Comité de Elecciones Sindicales.
Hauteskunde-prozesuen jarraipena, Sindikatuen Hauteskundeetako Batzordearen eskutik.	1.200	Seguimiento por el Comité de Elecciones Sindicales de los procesos electorales.
Ordezkaritasunaren ziurtagiriak.	400	Certificados de representatividad.
6. GIZARTE ETA LAN ARLOKO ESTATISTIKAK		6. ESTADÍSTICAS SOCIO-LABORALES
Estatistikak hilero argitaratzea.	120	Publicación mensual estadísticas y memoria anual.
Txostenak.	12	Informes.
Monografikoa.	2	Monográfico.
7. KUDEAKETA HOBETZEA		7. MEJORA DE LA GESTIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Aplikazio informatiko berriak ezartzea eta lehendik daudenak garatzea. Aplikazio kop.	2	1. Implementar nuevas aplicaciones informáticas y desarrollar las existentes. Nº aplicaciones.
2. Administrazio-prozedura hobetzeko jarduera-protokolo bateratuak garatzea. Protokolo-kopurua.	3	2. Desarrollar protocolos de actuación coordinada para la mejora de los procedimientos administrativos. Nº protocolos.
3. Zuzendaritzako langileen prestakuntzarako eta espezializaziorako ikastaroak. Ikastaroetara joatea.	10	3. Cursos de formación y especialización del personal de la Dirección. Asistencia a cursos.
8. SOLDATA-ARRAKALA EZABATZEKO JARDUERAK		8. ACTUACIONES EN MATERIA DE ELIMINACIÓN DE LA BRECHA SALARIAL
Soldata-arrakala ezabatzeari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina.	1	Campaña de sensibilización e información sobre la eliminación de la brecha salarial.
Euskadiko soldata-arrakalaren egoerari buruzko azterlana, inguruko beste herrialde batzuetan dagoenarekin alderatuta.	1	Estudio sobre la situación de la brecha salarial en Euskadi en relación con la existente en otros países del entorno.
Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen kolektiboak soldata-arrakalaren ikuspegitik berrikustea.	190	Revisión de los convenios colectivos del País Vasco desde una perspectiva de brecha salarial.
Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-planak berrikustea, soldata-arrailearen ikuspegitik.	260	Revisión de los Planes de Igualdad del País Vasco desde una perspectiva de brecha salarial.
Soldata-arrakala ezabatzeko plana Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzarentzat.	1	Plan de eliminación de la brecha salarial para la Inspección de Trabajo del País Vasco.

PROGRAMA	PROGRAMA
3121 GIZARTERATZEA	3121 INCLUSIÓN SOCIAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>LANA ETA ENPLEGUA</u>	<u>TRABAJO Y EMPLEO</u>
ENPLEGU ETA GIZARTERATZE ZUZENDARIA	DIRECTOR DE EMPLEO E INCLUSIÓN
INKLUSIO ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOA	ÓRGANO DE EVALUACIÓN, INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN EN MATERIA DE INCLUSIÓN

MEMORIA

Programa horren bidez, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak 3121 Programaren, «Gizarteratzea», aurrekontu-zuzkidura finantzatzeko du, transferentzia erabilita, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen duena sarrerak bermatzeko politika gauzatzeko. Programa horretan sartzen dira, halaber, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez sortutako Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organorako zuzkidurak. Organo horren eginkizunak lege horretan deskribatuta daude. 2024an, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema ebaluatzeko plan bat egingo da, kalitate-adierazleak txertatuta. Ebaluazio-kultura zabaltzeko eta prestatzeko ekintzak egingo ditu Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako eragileen artean. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako eragileekin elkarlanean arituko da politika publikoen diseinuan ebaluazio-irizpideak sartzeko. Lankidetzan arituko da Gizarteratzeko Euskal Kontseiluarekin eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearekin, ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak sartzeko Inklusiorako V. Euskal Planaren plan operatiboan, 14/2022 Legearen 146. artikuluan aurreikusitako hedadurarekin.	A través de este Programa la Dirección de Empleo e Inclusión financia la dotación presupuestaria, vía transferencia, del Programa 3121 «Inclusión Social» gestionado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para ejecutar la Política de Garantía de Ingresos. En este programa también se incluyen las dotaciones al Órgano de Evaluación, Investigación e Innovación en materia de Inclusión que se ha creado por la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión. Las funciones de dicho Órgano están descritas en esta ley. Durante el año 2024 se elaborará un plan de evaluación del SVGII, con incorporación de indicadores de calidad. Realizará acciones de difusión y formación de la cultura de evaluación entre los distintos agentes del SVGII. Colaborará con los distintos agentes del SVGII, en la introducción de criterios de evaluación en el diseño de las políticas públicas. Colaborará con el Consejo Vasco de Inclusión y la Comisión Interinstitucional para la Inclusión, para la introducción en el plan de operativo del V Plan Vasco de Inclusión, de criterios e indicadores de evaluación, con la extensión prevista en el artículo 146 de la ley 14/2022.
--	---

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN «GIZARTERATZEA» 3121 PROGRAMA FINANTZATZEA Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sarrerak bermatzeko politika gauzatzea. Bere azalpen-memoria, bai eta helburu zehatzen garapena ere, erakunde autonomoari buruzko atalean gehitu dira.		1. FINANCIAR PROGRAMA 3121 «INCLUSIÓN SOCIAL» LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO Ejecución por parte de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de la política de garantía de ingresos. Su memoria explicativa, así como el desarrollo de los objetivos concretos queda incluido dentro del apartado de OO.AA.
2. INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOA Politika Publikoak Ebaluatzeko Plana egitea.	1	Elaboración del Plan de Evaluación de las Políticas Públicas.
Hedapen-ekintzen kopurua.	4	Número de acciones de difusión.
Ebaluazio-tekniketakarako prestakuntza-ekintzen kopurua.	4	Número de acciones de formación de técnicas de evaluación.
Inklusiorako Planaren V. Plan Operatiboan irizpideak eta ebaluazioa aurkeztea.	1	Aportación de criterios e de evaluación en el Plan operativo del V del Plan de inclusión.
Hasierako diseinutik ebaluazio-irizpideak txertatzen dituzten ekintzen, planen eta programen kopurua.	10	Número de acciones, planes y programas que incorporen criterios de evaluación desde el diseño inicial.

PROGRAMA
3211 ENPLEGUA

ARDURADUNA
LANA ETA ENPLEGUA
ENPLEGU ETA GIZARATERATZE ZUZENDARIA

PROGRAMA
3211 EMPLEO

RESPONSABLE
TRABAJO Y EMPLEO
DIRECTOR DE EMPLEO E INCLUSIÓN

MEMORIA

Lana eta Enpleguko Sailari dagozkio enplegu, prestakuntza, eta gizarateratze-politiken plangintza estrategikoko eta politika horien koordinazioko eskumenak, eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren eremuan jarduten duten erakunde publikoek eta pribatuek diru sarrerak bermatzeko garatzen dituzten politiken koordinazioa.

Zehazki, Enplegu eta Gizarateratze Zuzendaritzari dagokio enplegu-planen eta -ekimenen plangintza eta diseinua zuzentzea, horien ezarpena koordinatzea, jarraipena egitea eta enpleguan dituzten emaitzak eta inpaktua ebaluatzea.

Halaber, Zuzendaritzak, besteak beste, enpleguan eta prestakuntzan berrikuntzak egiteko eta prestakuntzaren eta enpleguaren arloko plangintza estrategikoa egiteko ikerketak, azterlanak, analisiak eta txostenak egin behar ditu, lan-merkatuaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arteko harreman-ikuspegi berriak definituz, eta enpleguan eta prestakuntzan berrikuntza-proiektuak zeharka garatuz beste sail, administrazio edo erakunde batzuekin.

Plangintza estrategikoko hori gauzatzeko, hainbat tresna ditu, hala nola 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia eta 2021-2024rako Enplegu Plan Estrategikoa. Azken hori dokumentu exekutibo nagusia da, lehenengoaren formulazio estrategikoa zehaztu eta hedatzen duena. Plan honek Zuzendaritza honen ekintza definitzen du, eta haren koordinazioa, edukien hedapena, jarraipena eta ebaluazioa izango dira, neurri batean, 2024an izango dituen eginkizun nagusiak.

Corresponden al Departamento de Trabajo y Empleo las competencias de planificación estratégica de políticas de empleo, formación e inclusión social, y su coordinación con Lanbide, así como la coordinación de las políticas de garantía de ingresos de los organismos públicos y privados que actúen en el ámbito de la lucha contra la exclusión social.

Específicamente compete a la Dirección de Empleo e Inclusión, dirigir la planificación y diseño de los planes e iniciativas de empleo, coordinar su implementación, realizar su seguimiento y evaluar sus resultados e impacto en el empleo.

Asimismo, la Dirección tiene entre sus competencias realizar investigaciones, estudios, análisis e informes para la innovación en el empleo y la formación, y para la planificación estratégica en materia de formación y empleo, definiendo nuevas perspectivas de relación entre el mercado de trabajo, el empleo y la formación, así como desarrollar proyectos de innovación en el empleo y la formación de forma transversal con otros departamentos, administraciones o entidades.

Para llevar a cabo esa planificación estratégica, cuenta con instrumentos como la Estrategia Vasca de Empleo 2030 y el Plan Estratégico de Empleo 2021-2024. Este último constituye un documento eminentemente ejecutivo que concreta y despliega la formulación estratégica del primero. Este Plan define la acción de esta Dirección y su coordinación, despliegue de contenidos, seguimiento y evaluación serán, en parte, sus principales cometidos en 2024.

Inklusioari dagokionez, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzari dagokio 2022-2026 aldirako V. Inklusiorako Euskal Planaren eta haren 2023-2024 aldirako Plan Operatiboaren ezarpenaren jarraipena egitea, bai eta bi planen ezarpenaren jarraipena egitea ere. Plan horiek modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen dituzte esku hartzeko eta jarduteko ildoak eta jarraibideak, bazterkeria-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonak gizarteratzea lortzeko administrazio eskudunen jardura orientatzeko.

Era berean, 2024an, inklusioaren arloan erakunde publiko eta pribatuek gauzatutako proiektu esperimentalen 2023an hasitako sustapenarekin eta finantzaketarekin jarraituko da, Inklusiorako V. Euskal Planaren 2023-2024 Plan Operatiboaren inplementazioaren parte gisa. Proiektu horiek ikuspegi berezia eta berritzailea ematen diete bazterkeriaren aurkako politikiei, eta aurreikusitako emaitzek, parte-hartzaileen egoera nabarmen hobetzeaz gain, kohesio eta inklusio handiagoa lortzen lagunduko dute, eta beste esparru eta lurralde batzuetara mailakatzeko eta hedatzeko aukera emango dute.

2024an, Gizarteratzeko IV. Jardunaldia egingo da Gizarteratzeko Euskal Planaren esparruan, hainbat sistematik (enplegua, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza) gizarteratzearen esparruan lan egiten duten profesionalen arteko eztabaidarako eta hausnarketarako foro gisa.

Aurea hartzeko, iragartzeko edo prebenitzeko politikak definitzeko, lan-merkatuaren joerei buruzko azterketa prospektiboa egin behar da. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak Lanbideko Prospektiba Batzordean parte hartuko du, eta berrikuntza- edo esperimentazio-ekimenak batzorde horrekin koordinatuko ditu.

2024an, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean ezarritako enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko, ikertzeko eta berritzeko organoa sortzeko lehen urratsak egingo dira, eta Inklusiorako organoa 2024an egongo da martxan. Administrazio-organismo espezializatu horren eskumen-eremua izango da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren eta Euskal Enplegu Sistemaren berrikuntza eta ikerketa ebaluatzea eta sustatzea, bazterkeriaren prebentzioan eta desagerraraztean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresna gisa. Era berean, Enpleguaren Euskal Legea indarrean sartu ondoren, organo horren eskumena izango da enplegu-politika publikoak ebaluatzea ere.

2024an 2023an hasi ziren proiektuekin jarraituko da, hala nola Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuan enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa eratzen den Enpleguaren Foroa birmoldatzea, egitura Enpleguaren Euskal Legean ezarritakora egokitzeko.

2024an, halaber, enplegu- eta gizarteratze-politiken berrikuntzarako Euskal Sare bat egituratzen jarraituko da. Sare horrek adituen aholku-batzorde bat izango du, eta aipatutako politiken berrikuntzan inplikaturako enpresen eta erakundeen kluster-talde bat sustatuko du. 2024an zehar, espazio eta tresna berri horiek dinamizatu eta inplementatu egingo dira edukietan eta errealizazioetan.

En el ámbito de la inclusión, a la Dirección de Empleo e Inclusión, le corresponde, el seguimiento de la implementación del V Plan Vasco de Inclusión 2022-2026 y de su Plan Operativo 2023-2024 y el seguimiento de la implementación de ambos planes, que recogen de forma coordinada y global las líneas y directrices de intervención y actuación que deben orientar la actividad de las administraciones competentes para la consecución de la inclusión de las personas en riesgo o situación de exclusión.

Asimismo, en 2024, se continuará con la promoción y financiación iniciada en 2023 a los Proyectos Experimentales llevados a cabo por entidades públicas y privadas del ámbito de la inclusión, como parte de la implementación del Plan Operativo 2023-2024 del V Plan Vasco de Inclusión. Dichos proyectos aportan un enfoque singular e innovador a las políticas contra la exclusión, y sus resultados previstos, además de mejorar sustancialmente la situación de las personas participantes, contribuirán a una mayor cohesión e inclusión y permitirán su escalabilidad y extensión a otros ámbitos y territorios.

Durante el 2024, en el marco de dicho Plan Vasco de Inclusión se realizará la IV Jornada de Inclusión, como foro de debate y reflexión entre profesionales que trabajan en el ámbito de la inclusión, desde diferentes sistemas (empleo, servicios sociales, vivienda, salud y educación).

La definición de políticas anticipativas, predictivas o preventivas requiere el análisis prospectivo sobre las tendencias del mercado laboral. La Dirección de Empleo e Inclusión participará en la Comisión de prospectiva de Lanbide y coordinará sus iniciativas de innovación o experimentación con la misma.

El Órgano de evaluación, investigación e innovación de las políticas de empleo y de inclusión establecido en la Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos, y para la Inclusión estará en funcionamiento en 2024. Este órgano administrativo especializado tendrá como ámbito de competencia la evaluación, la promoción de la innovación y de la investigación en el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, así como en el Sistema Vasco de Empleo como instrumentos de desarrollo y mejora continua de las capacidades de intervención en la prevención y erradicación de la exclusión. Asimismo, tras la entrada en vigor de la Ley Vasca de Empleo, este órgano tendrá como competencia también la evaluación de las políticas públicas de empleo.

En el año 2024 se continuará con proyectos que comenzaron en 2023, tales como la remodelación del Foro de Empleo, que en el anteproyecto de Ley Vasca de Empleo se configura como órgano de participación en las políticas públicas de empleo, para adecuar su estructura a lo establecido en la Ley Vasca de Empleo.

En 2024 se continuará, asimismo, con el trabajo de articulación de una Red Vasca de innovación en políticas de empleo e inclusión que contará con un comité asesor de personas expertas y promoverá un grupo «clúster» de empresas y entidades implicadas en la innovación de las citadas políticas. A lo largo de 2024 estos nuevos espacios y herramientas serán dinamizados e implementados en sus contenidos y realizaciones.

Hiru euskal etxeek (egoitza Gasteizen duen zentro autonomikoa eta lurralde-zentroak Bizkaian eta Gipuzkoan) osatzen duten Enpleguko eta Gizarteratzeko Politika Aktiboen Berrikuntza Zentroen Sarearen antolamendu-egitura diseinatu eta antolatu ondoren, 2024an zehar azterketa-, ikerketa- eta esperimentazio-proiektuak sustatuko dira, lan-merkatuaren portaera hobeto ezagutzea eta enplegu-eskatzailen profilak eta euskal enpresen beharrak behar bezala egokitzea bilatzen duten ekimenen bidez. Ildo horretan, enplegu- eta gizarteratze-politika aktiboekin lotutako ekimen berriak diseinatu eta proposatzeaz ere arduratuko da.

Enpleguaren eta gizarteratzearen hobekuntzarako eta berrikuntzarako ebaluazioa eta analisia Zuzendaritzaren beste eginkizun bat da. Esparru horretan, 2023an hasitako proiektu batzuk garatzen jarraituko da, hala nola berrikuntzako «W Proiektua» garatuko da, lan aurreko egoeran dauden etorkinak erregularizatzen laguntzeko. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak horretarako ibilbideak ezartzen lagunduko du, Bizkaian eta Araban diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak laneratzea errazteko.

Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak gazteentzako prestakuntza-eta enplegu-tresnak eta -programak bultzatzen eta garatzen jarraituko du, Lanbidearekin koordinatuta.

